


Itzulpenak eta lankidetzak



Gramatika-lana sormenezkoago eginez, edo «Mari Gramarrauskinen ipuin tristea»*

Tom Hutchinson

• IPUIN BAT

Behin batean, eta orain dela gutxi, jaun bat bizi zen, Izkun Tzirakaskuntza izena zuena. Bazeukan honek alabatxo eder bat: Mari Gramarrauskin. Izkun Tzirakaskuntza jauna harro eta guztiz txoraturik zegoen bere alabarekin eta leku guztietan mintzatzen zen neskar buruz. Ez ziren aberatsak, alabaina. Mari Gramarrauskinetik eta Hitzulpene neskameak gogoz eta gogor lan egiten zuten. Baina pozik bizi ziren.

Eta egun batean dena aldatu zen. Jendea hasi zen Izkun Tzirakaskuntzaren kualitate txit onak ikusten. Izkun Tzirakaskuntza aberastu eta senargai desiragarri bihurtu zen askorentzat, laster, Lynn Guistika andre ospetsuarekin ezkondu zen. Honek bazeuzkan bi alaba; Sykolyenn eta Soziolyenn. Ezkondu ondoren, gauzak aldatzen hasi ziren. Mari Gramarrauskinetik oraindik ere berak egiten zuen etxeko lan guztia, baina izkutaturik bizi behar zuen. Gainera, Izkun Tzirakaskuntzarentzat debekatuta zegoen bere alabarekin hitz egitea. Hitzulpene neskamea ikaztegi sartu zuten eta ahaztu egin ziren hartaz. Baina Izkun Tzirakaskuntza hain txoratura zeukan bere emaztearen klase eta dotoretasunak, ezen dena onartzen zuen. Pozik pagatzen zuen, Sykolyennek eta Soziolyennek moda berri guztiei jarrai ziezaieten. Hiriko ondasun-ehiztari guztiek bisitatu zuten etxe hura.

Egun batean, Erregek Jaialdi Komunikatibo bat egongo zela aldarrikatu zuen. Jaialdiaren gaia Sormena zen. Sykolyennek eta Soziolyennek denetarik dotoreenak izan nahi zuten. Hala ere, ez ziren bere arropak ehuntzeko gauza. Mari Gramarrauskin gaixoak bordatu behar zituen beskeen arropa berriak. Hala ere, berarentzat ez zeukan arropa dotorerik. Zokoan utzi zuten bere arropa zaharrekin, beste guztiek Jaialdi Komunikatibora joan zirenean.

* Ingelesez «Making Grammar Work More Creative, or 'The Sad Tale Of Grammarella'». *World Language English* (4. bol., 1. zenb., 1984) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

Honekin, oraingo hizkuntz irakaskuntzaren mundura heltzen gara. Sormena, jaialdiaren gaia, hizkuntz irakaskuntza komunikatiboaren ezaugarri bihurtu da. Hala eta guztiz, azken urte hauetako metodologia eta edukinaren arloetako garapenak direla eta, alboan utzi da sormenezko hizkuntz erabilera posible egiten duen elementua: hizkuntz sistemaren ezaguera sortzailea; Mari Gramarrauskin bezala utzi da txokoan, Jaialdi Komunikatibora joan ezinik. Hizkuntzaren gramatika da, azken finean, hitzunari kreatora ahalmena ematen diona. Baina zer neurritan da sormenezkoa gure gramatika-irakaskuntza? Garaia da gramatika-lanari begirada berri bat emateko. Berriro aztertu behar dugu gramatikaren garrantzia hizkuntza ikasteko prozesuan. Horrelako berrazterketa egitea da artikulu honen helburua. Bestela esanda, Mari Gramarrauskinen amabitxi maitagarria izan nahi du artikulu honek.

Baina, gaur egungo munduan, amabitxi maitagarriak ez du soilik bere makilatxo majikoa astintzen; problemak era analitikoan aztertzen ditu. Nola, bada, sortu da dauka-gun problema?

• ETXEKO BORROKAK

Hizkuntz irakaskuntz bi arlotatik hartzen ditu bere oinarri teorikoak: hizkuntz deskribapenetik eta ikaskuntzaren teoriatik (gure ipuinaren Soziolynn eta Sykolynn).

Estrukturala + Behaviorista = Metodo Audiolinguala

Funtzional/Nozionala + Kognitibo/Afektiboa = Ikuspegi Komunikatiboa

Azpmarratu behar dugu elkarketa hau historikoa dela batez ere. Garapenak bi eremuetan gertatu ziren aldi berean eta, ondorioz, eremu baten bilakaerak beste eremuaren garapenei lotu zitzaizkien. Hala ere, deskribapen eta teorien implikazioak ondo miazten baditugu, ikusiko dugu badaudela kontraesanak ohizko elkarketa honetan. Hau argi eta garbi ikusten da batez ere gramatika-arauek hizkuntz irakaskuntzan duten lekua aztertzen dugunean.

Azken urteotan garapen garrantzitsuak gertatu dira bi arloetan; baina baita katramila eta iskanbila frango ere, garapen hauen implikazioak direla eta. Hizkuntz deskribapen eta ikaskuntzaren teoriaren artean sortu diren kontraesanak oraindik ez dira konpondu. Bi ahizpa itsusiek elkarrekin lan egiten dutela badirudi ere, benetan elkar gorrotatzen dutela esango luke baten batek. Izkutan, ezer esan gabe, bide ezberdinetatik abiatu direla ematen du.

Bai hizkuntz deskribapenean, bai ikaskuntzaren teorian, kultura eta azpikultura asko ikusi ditugu. Dena dela, eta gauzak nolabait sinplifikatzeko, arlo bakoitzean bi eskola nagusi aipatuko ditut.

Hizkuntz deskribapenaren arloan, badi-tugu deskribapen *estrukturala* (hizkuntza paradigma estruktural-multzo bat da) eta berragoa den deskribapen *funtzional/nozionala* (hizkuntza deskribatzeko, jendeak hizkuntzaz egiten duena kontutan hartu behar dugu).

Ikaskuntzaren teorian aipa ditzakegu eredu *behaviorista* (eragingarri eta erantzun prozesuaren errepikapenaren bidez ikasten dugu) eta eredu *kognitibo/afektiboa* (gure pentsakera eta gogoia pizten direnean ikasten dugu).

Historikoki honelaxe elkartu dira hizkuntz deskribapenak eta ikaskuntzaren teoria:

Ikuspegi kognitibotik, arauak guztiz beharrezkoak dira: pentsatzen dugunean ikasten dugu, eta pentsakera arauen bidez gertatzen da (hau da, eskema, eredu edo hipotesien bidez). Norbaitek zerbait ikasi duela esango dugu, arau jakin bat bameratu duenean eta orain dakien arau horren bidez egoera berrietan erabaki zuzen eta egokiak har ditzakeenean, hau da, ondorioak aurrikusteko gaitasuna daukanean (Stern, 1983: 342-345). Alderdi afektiboan, ikasleak se-

gurtasunaren premia gorria sentitzen du, eta arauak ematen diote segurtasun hori. Orduan, ikuspegi kognitibo/afektibotik arauen beharra eta garrantzia azpimarratzen da.

Dena dela, hizkuntz deskribapenaren arloko garapenak ikertzen baditugu, aurkituko dugu aurkako mugimendu bat gertatu dela. Arauetan oinarritutako sistema batetik (deskribapen estrukturala), araurik gabeko deskribapenera (deskribapen funtzional/nozionala) heldu gara. Hizkuntz deskribapenetan, alde batera utzi ditugu arauak.*

Hau honela bada, zergatik elkartu dira elkarren kontrako bi mugimendu hauek? Arraroa badirudi ere, bi mugimenduek badute amankomunezko helburu bat: hizkuntz irakaskuntzan hizkuntz erabilera gehitzearen alde daude. «Hizkuntz erabilera» hitzak modu desberdinetan ulertu izan dira, alabaina. Ikuspegi funtzionaletik, *hizkuntz erabilerak* esan nahi du jendeak hizkuntzarekin benetan egiten duena deskribatzea, hau da, jatorrizko hitzunen hizkuntz portaeraren deskribapena. Planteamendu kognitiboan, alderantziz, *hizkuntz erabileraren* aldeko jarrerarekin adierazten da ikasleari eragin behar diogula bere hizkuntz gaitasuna erabil dezan komunikazio problemak konpontzeko, ikaslearen gaitasuna murrizta bada ere. Argi dago ondorio ezberdinak ekarriko dituztela jatorrizko hitzunen imitatzeak eta daukan gutxiarekin saiatzeak.

Hizkuntz deskribapen eta ikaskuntzaren teoriaren arteko kontraesanak direla eta, gramatika baztertu egin dugu hizkuntz ikaskuntzan eta irakaskuntzan. Dirudienez, inork ez daki zer egin horrekin. Gramatika zerbaitez eta ezeroso bihurtu da irakasle eta idazleentzat. Ikasgelan ez bada gramatika guztiz baztertzen, orduan betiko teknika tradizionalen bidez irakasten da: ordezkatzetaula eta abarren bidez; agian glosa funtzionalen bat erantsiz; baina, funtsean, betiko moduan.

Planteamendu kognitiboak ikasgelan egiteko makina bat ariketa-mota sortu du: jolasak, rol-jokoak, bikote-lana, problema-konponketa, simulazioak, etab. Xedea da jariatasunari eta hizkuntz erabilerari eragitea. Hala ere, ahaztua izan da hizkuntzazko gaitasun sortzailea eskuratzearen beharra; eta gaitasun sortzaile horrek, azken finean, ariketa komunikatibo guztien azpian egon behar du. Bestela esanda, ikuspegi kognitiboaren lojika gauza guztietarako aplikatu dugu, baina ez hizkuntz sistemaren beraren irakaskuntzan. Ez ote da garaia planteamendu kognitiboa gramatikaren ikaskuntza eta irakaskuntzan erabiltzeko? Ordua da gramatika-lana ere problema-konponketa bezala ulertzeko, ikaslearen arrazontzeko gaitasuna horretan ere kontutan hartzeko. Mari Gramarrauskin gaixoa txokoan baztertua laga dugu. Nahikoa izan da. Saia gaitetzen dantzarako nola txukun dezakegun ikusten.

• MARI GRAMARRAUSKINEN ARROPA BERRIAK

Ikuspegi kognitiboa gramatikaren irakaskuntzan aplikatzeko, ez dugu ihardue-ra eta teknika berri asko sortu behar. Beste gauzetarako erabiltzen diren teknikak aplikatu ditzakegu gramatikaren irakaskuntzan ere.

Hona hemen gramatikarako hurbilketa kognitiboan erabil ditzakegun teknika batzuk:

Ordezkatze-taulak

Taula hauen bidez gramatika era argi eta simple batean aurkez dezakegu (ikus .1).

Batzuetan entzuten da horrelako ordezkatzetaulak ez direla komunikatiboak, zentzugabeko esaldiak sor bait ditzakegu. Egia da jatorrizko hitzunek «ez gaude lorategian» edo «katua bazkaltzen ari da» ez dutela oso maiz esaten. Baina hemen azpimarratu behar dugu egoera egokian ja-


* «Metodo estrukturala» eta «planteamendu funtzionala» hitzek nahasketa asko sortu dituzte. Erabilera zuzenean, «estrukturala» eta «funtzionala» hizkuntzak deskribatzeko erak dira eta inola ere ez irakaskuntz metodologiak.

Taulak ez ditugu osonik eman behar:

a) Osa ezazu taula hitz hauekin: naiz, da, zara, gara, zarete, dira.

Mikel Mikel eta Miren Ni Zure lagunak Zu eta biok Zu eta Mikel Zu	ikaslea(k) baserritarra(k) Bilbokoa(k) gaztea(k)	
---	---	--

b)

	ez da	handia, gaztea, txikia, zaharra beltza,	gorria txikia berria gaztea handia	da
---	-------	---	--	----

c) Ikasleek ordezkatzeko-taulen teknika menperatzen dutenean, beraiek ere taula berriak egin ditzakete.

Egin ezazu taula ondoko hitzokina:

Mikelek	ikusi	ditu	du	txakurrak
Miren eta Jon		gizona	gure lagunak	dituzte
				dute

• 1

torrizko hitzunek esaldi horiek sor *ditzaketela*. Sormena gaitasunean oinarritzen da, eta ez ariketan. Are gehiago, zentzugabeko esalditik abiatuz, ikasleei eska diezaiekegu egoera apropos bat asma dezatela esaldi horretarako: «idatz ezazu ipuin bat esaldi hori erabiliz». Ordezkatzeko-taulak

ez du nahitaez hizkuntz iharduera aspergarrria izan behar; entretengarri bihur daiteke.

Esaldi nahasiak

Esaldi nahasiak oso erabilgarriak izan daitezke hizkuntzaren hitz-ordena ikasteko.

a)	gure	etxe	berri	hau
	beste	katu	beltz	horiek
	hiru	sagu	txiki	haiek

(*) Itzultzailearen oharra: Adibideen tankera mantendu bada ere, edukia birmoldatu egin da, ingelesaren eta euskararen gramatikak ez bait dira berdinak.

Ipin itzazu taulan:

lau zaratatsu
hauek ikasle

zahar hori
eliza

urdin txori
zazpi hauek

b) Egin ezazu esaldi bat hitz hauekin: Mirenek / ditu / zure / ikusi / lagunak / ez.

c) Zenbat agindu egin ditzakezu?

idatz aulkian oinak esan
 uki nire jezar zure sudurra

Adibidez: Idatz zeure izena. Jezar aulkian.

Arauk asmatzen

Teknika hau edozein mailatan erabil daiteke.

a) Zergatik *hartu* -- *hartzen*, baina *ikusi* -- *ikusten*?
-tzen ala -ten? Ipin ezazu aditz bakoitza dagokion zutabeen:

jari lapurtu irabazi hazi aidatu etorri ekarri	hasi ikasi lagundu irakurri galdu ahaztu ulertu	<table border="1" style="margin: auto; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="padding: 5px;">-tzen</td> <td style="padding: 5px;">-ten</td> </tr> <tr> <td style="padding: 5px; border-top: 1px dashed black;">hartu</td> <td style="padding: 5px; border-top: 1px dashed black;">ikusi</td> </tr> </table>	-tzen	-ten	hartu	ikusi
-tzen	-ten					
hartu	ikusi					

b) Pareka itzazu aditz-formak:

eraman joan ekarri etorri ibili jakin	daki dator dabil darama doa dakar
--	--

Jokoak

Gramatika lantzeko jokoak nahiko hedatuak daude. Hona hemen bi adibide:

a) *Hitz gurutzatuak*. Galderak orainaldiko formak izan daitezke, eta erantzunak dagozkien lehenaldiko formak. Adibidez:

Ezkerretik-eskuinera: 1. digu, 2. dizugu, 3. dizkiguten...
(erantzunak: zigun, genizun, zizkiguten...)

Goitik-behera: 1. diote, 2. diet, 3. ditut...

b) *Esaldi-jokoa.* Dado bat erabil ezazu taulan (.2) zehar ibiltzeko. Idatz itzazu tokatzen zaizkizun hitz guztiak.

Irabazteko, esaldi oso bat idatzi behar duzu daukazun hitzekin.


mutilak	du	neska
ikusi		etxean
euskaraz		dira
ditu		pilotaka
eskolara		mintzatzen
bere		ari
dute		eta
lagunekin	ez	poliki

• 2

• JAIALDIAN

Orain Mari Gramarrauskinetik badauzka arropa berri eta dotoreak; baina zer gertatuko zaio Jaialdi Komunikatiboan? Non kokatzen da gramatikarako planteamendu kognitiboa irakaskuntza komunikatiboaren arloan? Jakina, ez dugu itzuli nahi gramatika-itzulpen metodoaren egunetara. Egun

haitetan, gramatika-arauak ikastea zen ikasgaiaren xedea. Baina helburu hori berritoki onartzea aurrerapen asko alboan uztea izango litzateke. Batez ere, hizkuntz erabilerak orain duen garrantzia bere hartan mantendu nahi dugu. Proposatuta nahi duguna hau da: gramatika-lan kognitiboak izan behar duela ikasgai edo unitatearen ardatza eta erdigunea. Honelaxe:



Inputa

Ikasleek gramatikazko puntua jatorrizko erabileran ikusten dute, testuliburuan edo irakasleak ikasgelan sortutako egoeran.

Gramatika-lana

Ikasleak saiatzen dira gramatika-araua aztertzen eta formulatzen. Modu honetan, daukaten ezagutza sendotu eta finkatu egiten dute, eta jarraian datozen ihardueratarako prestatzen dira.

Iharduera

Ikasleek gramatikazko puntua erabiltzen dute problema komunikatiboak konponzeko.

Planteamendu kognitibo honetan, gramatikazko puntua ikasgaiaren ardatza da, baina ez da azken helburua.

• KRISTALEZKO ZAPATA

Kristalezko zapataren jabearen bila joan baino lehen, Printzeak lan honen balioa kontsideratu beharko luke. Mari Gramarrauskinetik hainbat merezi al du? Zeintzuk dira, bada, planteamendu kognitiboaren abantailak? Bi galderari erantzuna eman behar diegu, alegia: gramatika-arauak irakatsi behar al ditugu?, eta zein da planteamendu kognitiboaren balioa?

Ez dago erantzun zuzenik lehenengo galderarentzat, oraindik ez bait dakigu oso ongi jendeak hizkuntzak nola ikasten dituen.

Baina, hain zuzen ere, horrexegatik merezi du problema honi ikuspegi desberdinetatik heldzeak. Honela areagotuko ditugu arrakasta-possibilitateak. Hau ez da ideia berria. Comenius-ek, XVII. mendean, hauxe idatzi zuen: «Hizkuntza guztiak errezago ikasten dira praktikaren bidez, araez baino. Baina araeak laguntzen eta sendotzen dute praktikatik hartutako ezagutza» (Stern-ek aipatuta, 1983: 78).

Orain dela gutxiago, antzeko planteamendu bat proposatu du Stevick-ek: «Pertsonak buruan dauzkan araeak, ereduak eta irudipenek elkarri lagundu egiten diote. Hau da, pertsonak asmatutako arau bat beste arau eta ereduaren baieztapena izan daiteke» (1982: 32).

Argudio praktikoa baina etsigarri hau gramatika-arauen ikaskuntzaren alde erabil dezakegu; gutxienez, segurtasun-sare bezala.

Orain saia gaitezen geure bigarren galderari erantzuna ematen. Zergatik planteamendu kognitibo bat arauak irakasteko? Badaude erantzun batzuk:

a) Motibazioa

Ikasleek gramatikarekin pentsatzen badute eta jolasten badira, gramatika interesgarri bihurtzen da eta ikasleak ez dira horrekin beldurtzen.

b) Hizkuntzari buruz ikastea

Ikasleak berak hizkuntzaren sistema iker-tzen badu, eta arauak eta ereduak aurkitzen baditu, hizkuntzak bere barneko logika daukala ikusiko du; dena ez dela ematen duen bezain arbitrarioa. Hizkuntz ikasle onak hizkuntza sistema bezala ikusten du (Naiman eta beste, 1978).

c) Hipotesiak egitea

Lehen hizkuntzaren eskurapena hipotesien bidez gauzatzen omen da. Bigarren

hizkuntzaren ikaskuntzan, planteamendu kognitiboak ikaslea asmatze-prozesu horri hurbiltzen dio.

d) Ikasteari buruzko ikastea

Ikuspegi kognitiboan nola ikasten duen ikasten du ikasleak. Daukan ezagutza erabiltzen ikasten du, arauak eta erlazioak hizkuntz datuetan aurkitzeko. Guzti honek ez du izan behar prozesu izkutua. Ikasleari esan diezaiokegu iker dezala arauak aurkitzeko erabiltzen duen prozesua. Modu honetan, ikasleak, edozein ikaslek, ikasle onek erabiltzen dituzten estrategiak eskuratuko ditu eta konfidantza izango du.

• **HANDIK AURRERA POZIK BIZI ZIREN?**

Ikastearen teoria kognitiboak hizkuntz irakaskuntzan izan dezakeen eragina ikusten hasi besterik ez dugu egin. Tamalez, hizkuntz deskribapenaren arloan gertatu diren bilakaera batzuk oztopo izan dira hizkuntz ikasprozesuan gramatikaren garrantzia ikusteko. Baina gramatika ez da desagertuko, hizkuntzaren sormenezko erabilerarako funtsezko elementua bait da. Horregatik ikaskuntzaren teoria modernoan laguntza eman behar diogu gramatikaren irakaskuntzari.

Gramatika-lanak ez du izan behar ariketa komunikatiboak egin baino lehen egin beharreko lan aspergarria. Hizkuntz ikaskuntzaren osakin guztiz interesgarria izan daiteke. Gramatikak badauka ahalmena sormenezkoa izateko, problema-konponketa iharduera izateko. Gramatika-lanak ez du bakarrik ikaslearen hizkuntz ezagutza gehiagotzen; ikasteko gaitasunaren garapenean ere lagun diezaiokie. Amabitxi maitagarriak bezala, guk ere esan beharko genuke: «Mari Gramarrauskin, joan hadi dantzara!».

AIPAMENAK

CARROL, J.B. 1965. «The contributions of psychological theory and educational research to the teaching of foreign languages». *Modern Language Journal*.

NAIMAN, N., M. FRÖLICH, H. H. STERN & A. TODESCO. 1978. «The good language learner». *Research in Education Series No. 7* The Ontario Institute for Studies in Education.

JAKOBOVITS, L.A. 1970. *Foreign Language Learning: A Psycholinguistic Analysis of the Issues*. Newbury House.

STERN, H.H. 1983. *Fundamental Concepts of Language Teaching*. OUP, Oxford.

STEVICK, E. 1982. *Teaching and Learning Languages*. Cambridge University Press, Cambridge, MA.

Itzultzailea: J. I. Hualde

HACIENDO MAS CREATIVO EL TRABAJO DE GRAMATICA, O 'EL TRISTE CUENTO DE GRAMICIENTA'

Desarrollos recientes, y a veces contradictorios, en las áreas de la teoría del aprendizaje y la descripción de lenguas han tenido como consecuencia que el trabajo de gramática se haya convertido en Cenicienta, abandonada en un rincón y de quien nadie quiere ni sabe cómo ocuparse, dentro de la enseñanza comunicativa de lenguas. La competencia gramatical del

alumno es, sin embargo, lo que posibilita la utilización creativa del idioma. El autor de este artículo sostiene que podemos y debemos hacer más creativas las tareas de gramática y sugiere algunos ejemplos concretos. De esta forma, elegantemente vestida con ropas nuevas, Gramicienta podrá finalmente asistir al Gran Baile Comunicativo.

MAKING GRAMMAR WORK MORE CREATIVE, OR 'THE SAD TALE OF GRAMMARELLA'

Recent, and sometimes contradictory, developments in the areas of language description and learning theory have made grammar work into a new Cinderella, about which nobody seems to know what to do in a communicative approach to language teaching. It is the student's grammatical competence, however, that ma-

kes possible a creative use of the language. The author of this article argues that we can and must make grammar work more creative and gives some concrete examples showing how this can be done. Dressed in her fine new clothes, Grammarella will finally be able to go off to the Communicative Ball.

EN FAISANT PLUS CREATIF LE TRAVAIL DE GRAMMAIRE, OU «LE TRISTE CONTE DE GRAMMAIRILLON»

Des développements récents et parfois contradictoires dans les domaines de la théorie de l'apprentissage et la description de langues, ont donné comme conséquence que le travail de grammaire se soit transformé en Cendrillon, abandonnée dans un coin et de qui personne ne veut s'occuper ou ne sait pas comment le faire, à l'intérieur de l'enseignement communicatif des langues. La compétence grammaticale de l'élève est,

cependant, ce qui fait possible l'utilisation créative de la langue. L'auteur de cet article affirme que nous pouvons et nous devons faire plus créatifs les travaux de grammaire, et nous suggère quelques exemples concrets. De cette manière, habillée avec des robes toutes neuves et élégantes, Grammairillon pourra finalement assister au Grand Bal Communicatif.